

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Legazpiko Udala

Ayuntamiento de Legazpi

1997

Vitoria-Gasteiz, 1999ko irailak 24

Vitoria-Gasteiz, 24 de septiembre de 1999



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	1
ONDORIOAK	2
I. Legea betetzea.....	2
II. Kontularitzako alderdiak	4
III. Udalak irakaskuntzako itunpeko zentro pribatuari emandako dirulaguntzak	5
IV. Finantzaren analisisa eta kudeaketa alderdiak.....	7
IV.1 Finantza analisisa	7
IV.2 Kudeaketaren bestelako alderdi batzuk eta gomendioak	9
INTRODUCCIÓN	17
CONCLUSIONES	18
I. Cumplimiento de la legalidad	18
II. Aspectos contables.....	20
III. Subvenciones del Ayuntamiento al centro privado concertado de enseñanza	21
IV. Análisis financiero y aspectos de gestión.....	23
IV.1 Análisis financiero.....	23
IV.2 Otros aspectos de gestión y recomendaciones	25
ANEXOS	33
A.1 Análisis de la contratación	33
A.2 Herrigintza, SA.....	36
A.3 Cuentas anuales.....	37
ALEGACIONES	41



SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bera araupetzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Legazpiko Udalak 1997ko urtealdian izan duen ekonomia-finantza jarduerari buruzko txosten hau mamitu du, 1998ko martxoa-1999ko martxoa bitarteko Urteko Lan Programan barne hartu zena.

Lana udal jardueraren gaineko azterketa-diagnostikoa egitea izan da eta honenbestez, azterlanak ez ditu bete-beteko fiskalizazioan gauzatu ohi diren prozedura guztiak egin eta froga laburtuak aplikatu dira, bai luzerari dagokionez, baita horien sakontasunari dagokionez ere.

Hona hemen aztertu ditugun alorrak: antolakuntza orokorra, aurrekontu eta kontularitzako kontrolak, tributuen kudeaketa eta dirubilketan erabili diren prozedurak, langileen kudeaketa, zerbitzu eta obren kontratazioa eta dirulaguntzak ematea.

Azterlana osatzeko Udalak emandako dirulaguntzen gaineko azterlan berariazkoa egin da, azken bost urteetan irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatu bakarrari emandako dirulaguntzena, alegia; lan honekin, HKEEk Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak egindako eskariari erantzun ematen dio (dokumentazio justifikagarri bitartez egindako egiaztaketak azken urtealdira mugatu dira).

Txostenak iritzirik ematen ez badu ere Udalak ezargarria zaion lege araudia bete izanari buruz, ezta finantza-auditoretzako iritzirik ere onartutako Kontu Orokorrari buruz, gure azterketan zehar aurkitu ditugun alderdi aipagarriak Ondorioen I. eta II. idazpuruetan bildu ditugu. III. idazpuruak irakaskuntzako itunpeko zentro pribatuari emandako dirulaguntzen gaineko berariazko azterketaren ondorioak biltzen ditu.

Ondoren, IV.1 idazpuruak udalaren finantza-analisia erakusten du eta IV.2 idazpuruak, berriz, udalaren kudeaketa hobetzeko iradokizun osagarriak proposatzen ditu.

Legazpiko udalak 96.12.31n 9.241 biztanle zituen eta hainbat zerbitzu bi erakunde autonomo eta baltzu publiko baten bitartez betetzen zituen:

- Kirolaren Udal Patronatua
- Udal Euskaltegia
- Herrigintza, SA (%100eko partaidetza): hirigintza jarduerak.

Honez gain, Gipuzkoako Uren Partzuergoaren atal da eta Sasietako (zaborren bilketa eta tratamendua) eta Urola Garaiko Mankomunitateena (lanbide irakaskuntza, kontsumitzaileari argibide ematea, anbulantzia, e.a.). Bestelako partaidetza txikiagoak Legazpiko Industrialdea, SA, Sortu 2, SA eta Ur Zerbitzuak, SA baltzuei dagozkie.



ONDORIOAK

I. LEGEA BETETZEA

Gure azterketa sarrerako atalean azaldutako hedadurarekin gauzatu dugu eta hona hemen ezargarria den araudian aurkitu ditugun legehausteak:

Aurrekontu eta kontularitzako araudia

- Aurrekontuak ez du Herrigintza, SA udal baltzuaren aurrekontua barne hartzen, ezta erakunde horrek duen zorpidetza muga finkatzen ere (4/91 FAren 6.1.f, h eta 6.2.c art.); hala eta guztiz ere, 1997an 147 milioi pezetako mailegua kontratatu zuen. Baltzuaren urteko kontuak Administrazio Kontseiluak onartu ditu, ez, ordea, Batzorde Orokorrak (udalaren Osokoak) eta ez dituzte 1997ko Kontu Orokorrean barne hartu (4/91 FAren 62. art.).
- Urtealdian zehar aurrekontu-izendapenik gabe edo diru-izendapen eskasa izanik honako gastu hauek oniritzi dira:
 - Kontratazioa aztertzeko hautatu ziren espedienteetatik sei (ikus A.1 eranskina); horien artean, Udal Polikiroldegiaren zaharberritze lanei buruzko 3 espedienteak; lan hauek 221 milioi pezetan esleitu ziren, diru-izendapena, ordea, 149 milioi pezetakoa baizik ez zen.
 - Legazpiko Industrialdea, SA 140 milioi pezetakoa; horietatik 50 milioi pta. 1997an ordaindu dira eta gainerakoa 1998an. 1997ko ordainketa abuztuan egin zen, nahiz eta aurrekontu-aldaketa ez zen abendura arte onartu.
 - San Miguel Fundizioaren pabeloi erosketa 65 milioi pezetan; aurrekontuak, ordea, 60 milioi baizik ez zituen aurreikusitako helburu honetarako.
 - Herrigintza, SAren kontura 6 milioi pezetako ordainketa, urtarrilean egindakoa, Aurrekontua otsailean onartu zelarik.
- Artekaritzaren kontrola ez da bi erakunde autonomoen gainean egiten: Kirolaren Udal Patronatua eta Udal Euskaltegia.

Zerga araudia

- Osokoak ez du etxerako laguntza zerbitzuaren prezio publikoari dagokion agintaraudia onartu, 1997an 3 milioi pezetako sarrerak eragin zituena. Betekizun hau udal araudiak agintzen du ordainarazpena baliagarria izan dadin (Toki Ogasunei buruzko 11/89 FAren 50. art.).

Funtzio publikoa eta langileria

- 97.12.3ko Osokoak 1997rako Arcepafe ezartzea onartu zuen, 1996ko ordainsariekiko %1eko igoera, gehi 20.000 pezetako zenbateko finkoarekin. 1997rako Estatuko



Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak (12/96 Legearen 17. art.) agintzen zuen urte horretako ordainsariek ez zutela 1996ko ordainsariekiko aldaketarik izango.

- Udal Euskaltegia erakunde autonomoak onartu gabe zuen lanpostuen zerrenda azterketa egin dugun garaian.
- Udal arkitektoa konfidantzazko aldebateko langilea da, 1992ko abenduan lansaioaren herena egiteko kontratatu zena. 1996an Herrigintza, SAren Administrazio Batzordeak agindu zion beste profesionari batekin lantaldean (%50) familibakarreko etxebizitzaren proiektua idazteko, langile publikoen bateraezintasun erregimena gogoan hartu gabe. Bestelako jardueren aribideak aurrez baimena eskatzeko agintzen du, kasu honetan, ukatu egin beharko zatekeena (Bateraezintasunei buruzko 598/85 EDren 11.3 eta 11.6 art.).

Administrazio kontratazioa (ikus A.1 eranskina)

- Udalak eta bi erakunde autonomoek 19 kontratu esleitzeko prozesuak aztertu ditugu, 1997an 260 milioi pezetako gastuak sortu zituztenak; hona hemen azaleratu diren betegabetzeak:
 - 71 milioi pezeta egin zituzten 9 kontratu lehiaketa prozesurik bideratu gabe esleitu ziren. Beste 3 kasutan, 19 milioi pezetakoak, esleipena hainbat hornitzaileari kontsulta egin ondoren egin zen, lehiaketa deitu beharrean.
 - Esleipenetatik hamabi, 1997an 86 milioi pezetako gastuak eragin zituztenak, aurrez aurrekontu edo plegu teknikorik, ez eta oinarri-arau administratiboen plegurik ere egin gabe bideratu ziren, eta esleipen hartzaileari bere betekizun fiskalak gaurkotuak zituelako egiaztatzea eskatu gabe.
 - Orokorrean, 2 espediente salbuetsita, esleipen ebazpenak aurrez artekariaren fiskalizaziorik jaso gabe jaulkitzen dira. Legehauste honen ondorioz, aurrekontu-izendapenik gabeko esleipen prozedurak bideratu dira, esate baterako, aurreko orrialdean aipatu ditugun 6 espedienteak.
- Herrigintza, SA udal baltzuak bost alditan bi milioi pezetatik gorako erosketa edo inbertsioak egin zituen, 25 milioi pezetako gastuak eragin dituztenak; espedienterik garrantzitsuenan gorde dira publizitate eta lehiaketa printzipio orokorrak, ez ordea, gainerako 4etan, 14 milioi pezetako gastuak eragin zituztenak.

Ondasun zerrenda

- Onartutako azken ondasun-zerrenda 1992. urtealdikoa da, gaur arte eguneratu gabea (1372/86 EDren 33. art., Ondasunei buruzko Araudia).



II. KONTULARITZAKO ALDERDIAK

Aurrekontuaren kontuak

1.- Gure azterketan, sarreran azaldu dugun alkantzearekin egindakoan, ondoko salbuespenak aurkitu ditugu, Diruzaintza Gaindikinean eragina izango luketenak:

	Milioi pta.
	97.12.31n Diruz.
	Gaind. eragina
Eragiketa arruntak	14
- 97.12.31n kobratzeko dauden tributu-sarrerak.....	71
- Nekez kobragarriak diren saldoentzako zuzkidura	(51)
- 97.12.31n kobratzeko dauden dirulaguntza arruntak	6
- 1. Kap.: 1997ko abenduko Gizarte Segurantza eta Elkarkidetzako kuotak.....	(5)
- 2. eta 4. kap.: 1997ko gastu aitortu gabeak.....	(7)
Kapital eragiketak	(189)
- Diputazioko dirulaguntzak: Ekipamenduen Plana eta bestelakoak.....	19
- Bikuñako kiroldegia: futbol zelaian zaharberritze lanak, kontuetaratu gabeak	(66)
- Erregistrorik gabeko 1997ko beste inbertsio batzuk.....	(3)
- Erabili gabeko maileguen kontzeptuan aitortutako sarrerak	(139)
Guztira	(175)

2.- Ez Aurrekontuak, ez Kontu Orokorrek ere, ez zituzten konpromezu-kredituak aurreikusi. Legazpiko Industrialdea, SAren kapital zabalketa hitzartzeko eragiketak 90 milioi pta.n zuzkitzea eskatuko zukeen.

Ondare kontuak

3.- Higiezinuaren saldoa ez dago egiaztatzerik, Udalak horren xehekapen banakakoturik ez duelako: 1992an egindako inbentarioaren zenbatekoak urtero gaurkotzen dira inbertsioetako 6. kapituluko gastu globalen zenbatekoarekin soilik.

4.- Herrigintza, SA udal baltzuaren kontuek Udalarekin duten 59 milioi pezetako zorra jasotzen dute, bere izenean aurreko urtealdietan egindako ordainketen kontzeptuan. Udal kontuek ez dute saldo hau jasotzen eta ez dira horren itzulketarako epeak finkatu.



III. UDALAK IRAKASKUNTZAKO ITUNPEKO ZENTRO PRIBATUARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Udalak irakaskuntza zentroekiko duen jarduera aldatu egiten da segun eta jabetza publiko edo pribatukoak diren. Publikoak baldin badira, udalak lagundu egiten du horien sorrera, erakuntza eta mantenimenduan (Toki jaurbidearen oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 25.n art.), eta gainerako kostuak Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak hartzen ditu bere gain. Ikastetxearen jabea pribatua baldin bada, udalak ez du inongo obligaziorik eta administrazio autonomoak finantzatzen ditu, kasua bada, kostu guztiak hezkuntza-itunen araubidearen bitartez, ikasgela kopuruaren arabera dirulaguntzak ematen dituena. Horren zenbatekoa aldatu egiten da hezkuntza mailaren arabera (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarrena, etab.) eta hiru osagaitan zati-banatzen da: langileria (garrantzitsuena), mantenimendua eta inbertsioen birjarpena.

Legazpin irakaskuntza-egitekoak bi ikastetxe publikok eta pribatu batek gauzatzen dituzte. Azken honi dagokionez egoera berezia gertatu da, zera, 1984ko azaroan Osokoak onartu zuen Patricio Echeverria, SAK hainbat ikastetxe lagatzea eta horretarako hitzarmen bat onartu zuten, bertako ondareari buruzko atalak bi urte beranduago eskritura publikoan jaso zirelarik. Lagapen honek Udala behartzen zuen, ebazpen bidez, ikastetxea irakaskuntza egitekoan mantentzera eta ikastetxeari egoera onean eusteko beharrezko ziren obra eta konponketak egitera eta berariaz aipatzen zituen, argindar, gasoil, ur eta garbiketa gastuak. Orobat, hitzarmenak aurreikusten du hirugarren batek langileria eta irakaskuntza egitekoak bere gain hartu beharko dituela, eta horretarako, administrazio autonomia aipatzen du.

Ondoko taulan zehaztu ditugu ikastetxearen mantenimendu kostuak eta irakaskuntzako itunpeko zentroa kudeatzen duen elkarteari azken bost urteetan emandako laguntzak:

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK ETA 1993/97-KO LAGUNTZAK					Milioi pta.
KONTZEPTUA	1993	1994	1995	1996	1997
Eraikuntzen garbiketa	12,3	9,8	8,0	4,0	5,8
Argiteria eta berogailurako erregaia	4,5	3,5	3,7	3,5	4,0
Eraikuntzaren mantenimendua	1,0	1,0	1,0	1,0	0,9
Hobetzeko inbertsioak	2,5	6,1	2,8	1,1	3,7
Eraikuntza kostuen azpitotala	20,3	20,4	15,5	9,6	14,4
2 urteko umeak eskolatzeko laguntzak...	3,3	2,7	2,4	1,3	-
kultur ekintzak	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9
Beste txikiago batzuk	0,5	1,1	0,5	1,0	0,3
Ekintzetarako laguntzen azpitotala	4,7	4,7	3,8	3,2	1,2
GUZTIRA	25,0	25,1	19,3	12,8	15,6



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eraikuntzaren kostuak

Ordainketa hauek 1984an onartutako lagapenetik eratorritakoak dira, horren indarraldia urtero Osokoak oniritzen duela, Aurrekontuan dagozkion izendapenak onartzean.

Administrazio autonomotik eskuratzen dituen laguntzekiko bateragarritasuna dela eta, hezkuntza-itunek ematen dituzten mantenimendu eta inbertsioetarako azpimoduloak, alegia, gure ustez moduloen gehienekoa hartu behar da kontutan eta administrazio autonomoari dagokio ikastetxeko jabeari eskatzea kostuek azpimodulo horiek berdindu edo gainditzen dituztelako justifikazioa.

Etorkizunari begira, ugariak dira Udalbatzak eskuartean dituen aukerak: egungo egoerari eutsi; Hitzarmenean aurreikusten den balizko publikazioa gauzatu (irakaskuntza egitekoak administrazio autonomoak har ditzala esaten duenean); instalakuntzak erabiltzen dituen elkartearekin eta lagapena egin duen enpresarekin harremanetan jarri 1984ko hitzarmena aldarazteko; edo baliogabe utzi eta hitzarmen hori baino lehenagoko egoerara itzuli. Edonola ere, gogoan hartu behar da egungo egoerarekiko zeinahi aldaketak eraginpeko alderdien borondatea eskatzen duela, izan ere, egoera juridikoa ohiz kanpokoa eta zehazgabea baita.

Egoera honekin jarraitzea aukeratzen bada, badirudi beharrezkoa dela udal laguntzak administrazio autonomoak ematen dituenekin koordinatzea. Udal fondoak udalerrian ematen diren hezkuntza zerbitzuak hobetzeko erabiltzea guztiz legezkoa bada ere, egiaztatu egin behar da laguntza osagarri horiek emateko egokitasuna eta finantzaketarako sistema orokorrarekin ez daitezela gainjarri; horretarako, laguntzak ekintza zehatzekin lotu behar dira, zuzen egiteratzen direla Udalak kontrolpetzeko moduan.

Azkenik, esan behar dugu ez dagoela ikastetxea kudeatzen duen elkarteari udal eraikinen erabilera aitortzen dion hitzarmen edo kontraturik; dena dela, badirudi huts hau ez dela garrantzitsua dituzten erabilera mugak ikusita, baina komeniko litzateke egoera hori zuzentzea.

Udalari gomendatzen diogu lagapen hitzarmena aztertzeko, laguntza publikoen balizko pilaketa eragiten duten baldintzak alda ditzala eta Udalbatzaren esku utz dezala urteko Aurrekontuaren bitartez irakaskuntzarako itunpeko zentroaren finantzaketa baldintza gehigarriak erabakitzeko askatasuna, Euskal Herriko Administrazio Orokorretik jasotako fondoan osagarri gisara.

Ekintzetarako laguntzak

Ordainketa hauei dagokienez, gure azterlana 1997an mantentzen den dirulaguntza-kontu bakarrera mugatu da eta egiaztatu dugu dirulaguntza hori Udalbatzak Aurrekontua onartu zuenean izenez esleitu zuela eta udalerriko beste bi irakaskuntza zentroetarako ere diru-izendapenak barne hartzen dituela (1997an, hurrenez hurren, 0,4 eta 0,5 milioi pezeta).



IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA KUDEAKETA ALDERDIAK

IV.1 FINANTZAREN ANALISIA

Geroko inbertsio programen finantzaketa, batik bat, honako aldaki hauen baitakoa da: bi barneko aldaki, eragiketa arruntek sortutako emaitza eta zorpidetza handiagoa sortzeko aukera; eta kanpoko aldaki baten baitakoa, beste erakunde batzuetatik dirulaguntzak eskuratzekoa.

Udalaren magnitude nagusiak azken urteetan, onartutako kontuetatik murriztuta, ondoko taulan jaso ditugu:

FINANTZA ANALISIA	Milioi pta.n						Mila pta.n/biztanleko	
	Urtea			Urtea			Erref.(*)	
	96	97	98	96	97	98	Gip.	EAE
1etik 3rako kapit. sarrerak	321	325	353	35	35	38	53	49
4. eta 5. kapit. sarrerak.....	515	578	610	55	62	66	64	53
A. Sarrera arruntak guztira	836	903	963	90	97	104	117	102
Langile gastuak.....	235	250	261	25	27	28	31	31
2. eta 4. kapit. gastuak	359	387	466	39	42	50	45	42
B. Funtzionamendu gastuak	594	637	727	64	69	78	76	73
Aurrezki gordina (A - B)	242	266	236	26	28	26	41	29
Finantza gastuak: 3. kapit.	74	53	44	8	6	5	5	4
Emaitza arrunta	168	213	192	18	22	21	36	25
Jasotako kapital dirulaguntzak	97	156	92	10	17	10	8	11
Inberts. (Gast. 6.,7.,8. kap. - Sarr. 6.,7. kap).	300	390	367	32	42	40	30	23
12.31n Diruzaintza gaindikina (**)	78	64	49	8	7	5	24	20
12.31n erabilitako zorpidetza.....	883	885	949	95	95	102	76	51

(*) Gipuzkoa / Euskadiko 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko Udalen 1997ko batez bestekoa.

(**) Erabili gabeko maileguez sortutako zor-saldoak kenduta.

Bizt.: 9.241

Aurrezki gordina


Udalaren biztanleko aurrezki gordina lurralde historikoan antzeko udalek dutena baino txikiagoa da. Aldea, batik bat, biztanleko sarrera fiskal txikiagoetan dago, 3. atalburuan oinarritua, eta hein txikiagoan, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren dirubilketan; egoera hau xehetasun handiagoz aztertu beharko luke Udalak.

Transferentziek eragindako sarrerek, batik bat itunpeko tributuetan udalaren partaidetzak, goraldi handiak izan dituzte 1996-98 aldian eta honek funtzionamendu gastuak %30 gehitzea bideratu du, gastuen 2. eta 4. atalburuetan; sortutako aurrezki, ordea, ez da nabarmen urritu.



Inbertsioak


Inbertsio ahalegina handia izan da hirurtekoan (300-390 milioi pta. urteko, horietatik %30 hirugarrengandik jasotako berariazko dirulaguntzekin finantzatutako inbertsioak dira); inbertsioak, batez ere, kultur eta kirol esparruetan egin dira (kiroldegia, Mirandaolako burdinola zaharrean) eta industrialdearen garapenean laguntza emanez.



Gipuzkoako zutabea 1997ko urtealdiari dagokio.

Zorpidetza

Aurreko inbertsioek zorpidetza erabili arazi dute, aztergai dugun hirurtekoan 66 milioi pta. gehitu direnak.



Gipuzkoako zutabeak 1997ko urtealdiari dagozkio.

Udal zorpidetza oso altua da, lurralde historikoan altuenetakoa. Ezargarri diren interes tipoek behin eta berriz behera egitearen ondorioz, finantza-gastuak gaur egun (aurrezki



gordinaren %20) udalaren autofinantzaketa-gaitasuna baliogabetzeko adinakoak ez izatea eragiten du.

IV.2 KUDEAKETAREN BESTE ALDERDI BATZUK ETA GOMENDIOAK

AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

Helburuak eta adierazleak. Sailkapen funtzionala.

1997rako Aurrekontuak ez zituen udal arduradun bakoitzak eskuratu beharreko helburuak barne hartzen eta informazio hori oinarrizkoa da aurreikusitako gastuen datu ekonomikoak osatzeko.

Aurrekontuaren 13 sekziotan garapen organikoa zorrotza bada ere, badirudi zenbait kasutan komenigarria dela kontuen plana zabaltzea hainbat zerbitzu garrantzitsuren kostuak berariaz kontrolatzeko (kale-garbiketa, zaborrak, argiteria publikoa), gaur egun hirigintza eta zerbitzuen atalean sartuak daudenak (300 milioi pezetako gastua 1997an).

Aurrekontuaren gastu kopuruak osatzea komeniko litzateke, eskuratu beharreko urteko helburuekin, gerora jarraipena egitea bideratuko duen modu objetiboan.

Aurrekontua: Langileriaren Eranskina

Bi erakunde autonomoen aurrekontuak ez zuen Langileen Eranskina barne hartzen, gastuen 1. atalburuaren izendapenak zehaztu behar dituen (4/91 FAren 6.1.i art.).

Hitzartutako gastuaren gaineko kontrola: D fasea

Kopuru txikiagoko ordainagiriei dagokienez, Udaletxean ez da egiten eskaeren gaineko kontrolik (gastuen kontabilitatearen D fasea); orobat, ez da krediturik badagoela egiaztatzen ordainagiria oniritzi arte.

Legez eskagarria den betekizuna izateaz gain, kontrolaren ikuspuntua abiaburu hartuta, komenigarria da hitzartutako gastuak kontuetaratzeko D atala ezartzea. Eskaeren kontrolak ordainagiria iritsi aurrekoa izan behar du, gutxienez, 100.000 pezeta eta lehiaketak deitzeko gutxienerako muga artean dauden eragiketei dagokienez.

Hau lortzeko, baimendutako zinegotziek eskaeren-formulario bat bete beharko lukete, artekaritza fiskalizatuko lukeena, onartu eta kontuetaratu (baita bideratu ere, erosketen kudeaketa zentraltzeko aukera egiten bada).

Ondasun zerrenda eta higiezinaren kontrola

Udalean egindako azken ondasun-zerrenda, 1992koa da, balantzearen higiezin-duk saldoak zehazteko egin zen balorazioa erabiliz; horiek, hurrengo urteetan, 6. atalburuko



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

inbertsioekin eguneratu dira. Azken oharpen hauek orokorrak dira, eragiketa ugari biltzen dituztenak, elementu banakakotu bidezko xehekapena jasoko duen kontrol sistema lagungarririk izan gabe, eta zehatzago, erabateko edo zatizko baja, lekualdaketa, diru-ordainik gabeko lagapen edo emakida, aldaketa, eta abarren gaineko jarraipen sistematikorik batere egin gabe.

1992ko ondasun-zerrendak hainbat elementuren erregistro-egoera zuzentzeko beharra erakusten zuen; prozesu hori, ordea, amaigabe dago.

Ondasun-zerrenda gaurkotu eta beharrezkoa duten elementuen erregistro-egoera zuzendu. Espediente bakoitzaren gainean kontrol banakakotua egiteko sistema ezarri eta etengabe gaurkoturik mantenduko duten urteko aldaketak gauzatu.

Ondare kontabilitatea

Udalaren egoera balantzeak ez ditu funtzionarioak 1993ko apirilean Gizarte Segurantzara biltzeak eta pentsio sistema foral zaharrak zorpetutako pentsio osagarriek eragindako pasiboak barne hartu; pentsio sistema zaharrak eragindako obligazioak azterketa gaurkotu bitartez balio-neurtu beharko lirateke.

Erakunde autonomoen urteko kontuek ez zuten egoera balantzea eta emaitzen kontua barne hartzen.

Ordainketa-agindu osagabeak

Jaietarako gastuek 12 milioi pezeta egin zituzten 1997an eta kontabilitatean artxibatutako egiaztagiriak aztertu ondoren ikusi dugu, kasu gutxi batzutan izan ezik, egiaztagiri horiek gainerakoetan gastu-proposamen bat baizik ez direla, agiri egiaztagarriak Kultura sailean gordez. Aribide hau bera beste agindu batzuetan ere modu isolatuan azaleratzen da.

Kontularitzako erregistroek egindako gastua justifikatzeko ezinbestean beharrezkoa den dokumentazioa besarkatu behar dute. Duen garrantziagatik, dokumentazio mota hau Artekariaren ardurapean modu zentralduan zaindu behar da.

Zentraldu gabeko kontu korronteak

Udala dirubilketan sartu gabeko bi kontu korronteren jabe da, liburutegi eta kultur etxeko sarrera eta gastu txikiagoak jasotzeko direnak.

Kontu hauen izatea birplanteatu eta, nolana ere, horien saldoak hileroko dirukontaktetan barne hartu.



Bestelako alderdiak

- Diruzaintza-gaindikina kalkulatzeko erabili den aurrekontuz kanpoko saldoaren eta balantzeak erakusten duen saldoaren artean 3 milioi pezetako aldea dago; alde hori udalak aztertu beharko luke.
- Batzordeetan esku hartzeagatiko dietak gastuen 2. atalburuan sailkatu behar dira eta aurrekontuaren 11. artikulua, berriz, konfidantzazko aldibateko langile bakarraren ordainsarietarako erabili behar da.
- 1997an inbertsioen kapituluan langileen ordainsariak erregistratu ziren, 7 milioi pezetako zenbatekoarekin. Eragiketa hauek duten izaera laboralak 1. atalburuan sailkatzeko eskatzen du, kontratazioen helburua inbertsioak egitea izatea alde batera utzita.
- Inbertsioen atalburuan Euskal Herriko Txirrindularitza Itzulia antolatzeke emandako 3 milioi pezeta ere sailkatu dira, udalerriko kirol elkarte batengandik eskuratutako 2 milioi pezetako laguntzetatik garbi. Kontularitzako oharpenak kopuru garbiekin egitea ez da zuzena eta gainera, gastu hau gastu arruntaren kapituluetan sailkatu behar zatekeen.

TRIBUTUEN KUDEAKETA ETA DIRUBILKETA

Dirubilketa-kudeaketaren informazio sistema

1997an dirubilketaren kudeaketak aurreko informatika sistema aldatu zuen, IZFE, SA foru baltzuaren baitakoa zena, eta udalaren beraren beste sistema bat hautatu, hartara kudeaketaren informazioa eta horren erabilgarritasuna hobetzearen.

Kobratzeko dauden saldoen gaineko azterlan berariazkoa egin, helburu bikoitza izanik: zerga zordunen gaineko informazioa alderatzea batetik, eta kobratzeko dauden ordainagiri eta likidazioak araztea, bestetik.

Gainera, komenigarria litzateke dirubilketa kudeaketaren aldizkako kontrola egiteko beharrezkoa den informazioa zehaztea, jaulkitako ordaingari/likidazioen gaineko informazioa emanez, molde ezberdinetan egindako kobrantzak, baliogabetzeak, geroratzak, errekurtsioak, zor-egiaztagiriak, etab. (Dirubilketa Kontua).

Ur Zerbitzuak, SA

Gipuzkoako Uren Partzuergoak enpresa misto hau erakunde pribatu batekin batean sortu zuen, lehiaketa prozesu batean hautatu zena, (partaidetza publikoa %51koa da). Bere helburua hornidura eta saneamendua toki-zerbitzuen kudeaketan udalei laguntzea da.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

1997ko apirileko udalbatzaren akordio bitartez, udalak baltzuaren kapital gehiketa bat hitzartu zuen eta enpresa honi agindu zion abonatuaren kudeaketa eta ur eta saneamendu hornidurarako sarearen mantenimendua.

Erakunde berri hau dirubilketa prozesuetan sartu izanak, 1997an zuzendu beharreko hainbat huts eragin zituen: zerga-erroldak Alkatearen onirizpenik gabe igortzea eta zabor bilketagatiko tasaren dirubilketa kudeaketa modu araugabea agintzea.

Orobat, badira Ur Zerbitzuak, SAREkiko harremanaren hainbat alderdi, etorkizunean zehaztasunez mugatu beharko liratekeenak: lauhileko likidazioak egiteko epeak, arazoak eragiten dituzten ordainagirien tratamendua eta zerbitzuaren araudia eguneratzeko komenigarritasuna.

Zergaren bestelako alderdiak

Zerga kudeaketak informazio erabilgarriaren gainean egiaztaketa fisiko sistematikoak egitea eskatzen du (katastroak, eraikuntzak, etab.); baita, eskurako datu-base informatikoen arteko koherentziaren gainekoak ere (Foru Diputazioak kudeatu behar dituen tributuoak aiantzi gabe, jakina).

Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zergaren likidazioa atzerapenez egin zen 1997an, urte horretako sarrera modura aitortutako azken likidazioa urte horretako ekainari zegokiola.

Epe ertainean gauzatzeko eginkizuntzat hartu eskuragarri diren zerga-datuak aztertu/ikuskatzeko programa. Lursailen balioaren Igoeraren gaineko Zerga likidatzeko prozesuak arindu.

LANGILERIA

Aldibateko lan kontratupeko langileria kontratatzea

Udalak aldibateko langile beharrianak dituenean INEMera jotzen du; honek izangaiak proposatzen ditu eta orokorrean, zinegotzi, langile-ordezkari eta udal idazkariak osatutako epaimahai batek balioztatzen ditu. Prozedura hau bera erabili zen 1997ko urrian Mirandaolako Burniola Zaharrean 9 pertsona 5 hilabetetarako kontratatzeko.

Prozesuari publizitatea eta berme formal handiagoa eman (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 33.1 art.). Garrantzia txikiagoa duten kontratazioetarako INEM bezalako entitateetara edo antzekoetara jotzen bada, publikoki jakinarazi hori izango dela jarraituko den bidea, hartara, interesa dutenak zerrendetan izena eman dezaten.



Lanpostuen zerrenda / LZ

Udaletxeko funtzionarioen ordainsarien egitura ez da Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 77tik 81era bitarteko artikuluetan finkatutakora eta 207/90 Dekretuan ematen zaion garapenera egokitzen. Alderik garrantzitsuena berariazko osagarrian aurkitu dugu, izan ere, aipatutako araudiaren arabera, lanpostu osagarria lanpostu bakoitzarentzat finkatu behar da, dedikazio, nekagarritasun, erantzukizun edo bateraezintasun mailaren arabera. Udalean, osagarri guztiak lanpostuaren maila soilik gogoan hartuta izendatzen dira.

Gainera, LZk ez ditu 5 langilek berariazko dedikazio-osagarria izateagatik jasotzen dituzten 5 milioi pta.k barne hartzen; ezta, 21 pertsonari 2 milioi pezetan ematen zaizkien bestelako osagarriak ere, nahiz eta 1997rako aurrekontuari atxikitako langileriaren eranskinean zehazten diren.

Lanpostuen zerrenda osatu, ordainsari-kontzeptuak ezargarria zaion araudiari egokitu.

Langileen erregistroa

Erregistro honek langilearekin zerikusirik duen gora-behera oro erakutsi behar du; araudiak berariaz aipatzen ditu (EFPLren 34. art.) ordainsarien gaineko aldaketei dagozkien haiek. 8 espediente aztertu ditugu eta horietako lautan ez da ebazpenik egin ordainsariaren maila aldatu izanaren ondorioz; beste batean, zerbitzu eginkizun baten emakida-ebazpena falta zen eta orokorrean, lanpostua betetzeko eskatzen den titulazioaren egiaztagarririk ez da barne hartu.

Langileen erregistroaren edukia berrikusi gaurkotu ahal izateko.

ALDERDI FISKALAK

Zerga Obligazioak

Adierazi dugu hainbat kontratazio egiten direla kontratariak bere zerga betekizunak gaurkotuak dituen egiaztatu gabe. Orokorrean, dirulaguntzaren esparruan ere ez da betekizun hau egiaztatzen.

Zinegotziei bileretan esku hartzeagatik ordaintzen zaizkien dietetan ez da atxikipenik egiten eta ez zaizkio Foru Ogasunari aitortzen; kontzeptu honek 1997an 4 milioi pezeta egin ditu. Orobat, langileei emandako aurrerakin kontzeptuko ordainketak ere ez dira aitortzen.

Udalak Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia antolatzen duen erakundearekin hitzarmen bat izenpetu zuen lehenengo etapa udalerrian hasi eta amaitzeko. Hitzarmenean udalak 5 milioi pezeta ordaintzeko obligazioa beretu zuen, dirulaguntza izaera eman ziola. Udalak ez zituen erakunde honi egindako ordainketak jaso hirugarrengoekin izandako eragiketen urteko aitorpenean.



Familibakarreko etxebizitaren proiektuaren ordainketa, 6 milioi pezetakoa, udal baltzuak egin zuen eta hainbat atxikipen egin zitzaizkion; atxikipen horiek, ordea, errakuntza bategatik, ez zituzten ez kontuetaratu, ezta sartu ere.

Udalari dagozkion zerga obligazioak bete eta aipatutako hutsak zuzendu.

KONTRATAZIOA ETA GASTUAK

Erosketa unitatea

Udalaren erosketa-bolumenak administrazio unitate espezialdu bat sortzeko bide ematen du, eskarien jaulkipena zentralduko duena eta kontratazioaren araudia betetzeko ardura ere izango lukeena. Beste egiteko batzuk, erosketa prozesuak araupetzea, zentraldutako erosketen esparrua mugatzea, biltegiratze-beharrizanak balio-neurtzea, etab. izango lirateke.

Erosketen kudeaketa eta kontratazio prozesuak zentralizatu.

DIRULAGUNTZAK

Udalak ematen dituen dirulaguntza nagusienak Pobreziaren aurkako Planari dagozkionak eta enplegua sustatzera emandakoak dira, berariazko araupena dutenak. Gainerakoa, 1997an 31 milioi pezeta, araugabeki banatu zen, Udalak ez baitzuen 1998ra arte horri buruzko araudirik garatu. Hiru dirulaguntza-hartzaile mota bereizi ditugu, arauketa-beharrizan ezberdinak dituztenak:

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak, interes publikoa duten helburu orokorrekoak (17 milioi pezeta): erakunde hauekiko lankidetzaren udalaren batzorde informatiboen bitartez bideratzen da; udalak egiten dituen bileretan parte hartzen dute eta bertan proposatzen da urte hasieran alor bakoitzean erabilgarri diren diru-izendapenak, aurkeztutako programa ezberdinen arabera.
- Zerbitzu guztiz zehatza ematen duten bestelako taldeak, udal instalakuntzen erabilera beharrezkoa izan dezaketenak eta zenbaitetan, dirusarrerak sortzen dituztenak; egoera hauek are zailagoa egiten dute horien arauketa. Talde honetan barne hartu ditugu tailer plastikoak (1,8 milioi pta.), musika eskola (2,4 milioi pezeta) eta musika eta txistulari taldeak (1,8 milioi pezeta).
- Azkenik, bada berariazko dirulaguntza-bide bat, Udalbatzak 1993an onartu zuena, eta baliabide ekonomikorik gabeko agureen egoitzetako egonaldiak finantzatzeko dena (2,3 milioi pezeta); gaur egun, lau agurek baizik ez dituzte laguntzak jasotzen. Udalbatzak gero arauketa xehetua aipatzen zuen, oraindik gauzatu ez dena.

1998ko martxoan Udalbatzak irabazi asmorik gabeko elkarteei dirulaguntzak emateko prozesuak arautu zituen; honek lehenengo taldearen arazoa



konpontzen du, baina gainerako dirulaguntzetan azaleratu diren arazoak zuzentzeko daude.

ANTOLAKUNTZA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

Antolakuntza-egitura

Udalbatza eta Gobernu Batzordeaz gain, udaletxean 11 batzorde informatibo daude, bakoitzak udal administrazioaren esparru jakin baten gaineko ardura duela. Bi erakunde autonomoak eta udal baltzuak eskumen garrantzitsuak dituzte kirolaren, euskararen eta hirigintzaren alorrean, horien gobernu batzordeak dagokion udal batzordeari gainjartzen zaizkiola. Guzti honi Uren Partzuergoa, bi mankomunitateak eta elkarte mistoa gehitu behar zaizkio; hauei Udalbatzak zaborrak jasotzeko udal zerbitzua, uren banaketa eta saneamendua, dagozkion udal-sarreraren bilketa, etab. agindu zizkien.

Erabakiak hartzeko gaitasuna zabaltzeak kudeaketa arintzen du baina funtzionamendurako baliabide handiagoak eskatzen ditu eta udal jarduerak ezinbestean behar duen koordinazioa zailtzen. Bi alderdi hauek orekatzea erraza ez bada ere, badirudi komenigarria dela berriz planteatzea bi erakunde autonomoek sortutako gainezarpena eta, ondotik zehazten denaren arabera, udal baltzuak sortutakoa.

Herrigintza, SA: estatutuak eta jarduerak

Herrigintza, SA,ren estatutuen 2. artikulua baltzuaren xedea mugatzen du eta oso zabala da. Hirigintzaren esparruan oinarritzen bada ere, jasotzen ditu beste klausula batzuk Udalaren kontura obrak egiteratzea bideratzen dutenak, udal zerbitzu publikoen kudeaketa edo Udalbatzak agintzen dion bestelako ekimenak egiteratzea.

Artikuluak duen izaera orokorrak jarduera-multzo oso zabala besarkatzea bideratzen dio, baita familibakarreko etxebizitzak eraikitzea ere; jardunbide hori, ordea, egokiagoa zatekeen aribide pribatuaren esku uztea.

Baltzuak ez zuen kontratatutako langilerik eta bere egoitza Udalarena bera da; gainera, bi enpresak kudeatzen dute, udal teknikarien laguntzarekin. A.2 eranskinean ikusi dugun moduan, baltzu honen gastuak handiak izanda ere, eragiketa kopuru murriz batean pilatzen dira, 1997an indarrean zeuden 3 hirigintza-jarduerari zegozkienak.

Administrazio Publikoek Merkataritza Baltzu bat sortu edo bertan parte hartzeko formula, eraginkortasun eta zuhurtasun arrazoi sendoek hala eskatzen dutenean soilik erabiltzea gomendatzen dugu; eta, nolahi ere, administrazio kontratazioa ezezik, langileria, aurrekontu-, finantza- eta



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kontularitzako kontratazioaren oinarri diren printzipioak gordez egin beharko da.

Horien helburu sozialak modu argi eta zehatzean adierazi behar du baltzuaren xede publikoa eta jarduera esparrua.

Estatutuek (10.g, h eta 16.d, g art.) ez dituzte argi zehazten Batzorde Nagusiaren eta Lehendakariaren eskumenak ondasun salmenta eta maileguren kontratazioari dagokionez.

Zehaztasun handiagoz mugatu beharko lirateke baltzuaren jarduerak eta bere organoen eskumenak.



INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88, reguladora del mismo, ha realizado este informe sobre la actividad económico-financiera del ayuntamiento de Legazpi en el ejercicio 1997, incluido en el Programa Anual de Trabajo marzo 1998-marzo 1999.

El trabajo realizado ha consistido en un análisis diagnóstico de la actividad municipal, por lo que debe señalarse que no se han seguido en la revisión todos los procedimientos propios de una fiscalización completa, habiéndose aplicado pruebas abreviadas, tanto en su extensión como en los alcances de las mismas.

Las áreas analizadas han sido las siguientes: organización general, controles presupuestarios y contables, procedimientos aplicados en la gestión y recaudación de tributos, gestión de personal, contratación de servicios y obras, y otorgamiento de las subvenciones.

El análisis se completa con un estudio específico de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento en los últimos cinco años al único centro privado concertado de enseñanza, con lo que este TVCP atiende a una petición formulada por la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco (las verificaciones con documentación justificativa se han limitado al último ejercicio).

Aunque el informe no emite una opinión sobre el cumplimiento por el Ayuntamiento de la normativa legal que le es aplicable, ni una opinión de auditoría financiera sobre la Cuenta General aprobada, los aspectos parciales encontrados en la revisión se describen en los epígrafes I y II de las Conclusiones. El epígrafe III presenta los resultados de la revisión especial de las subvenciones concedidas al centro privado concertado de enseñanza.

A continuación, el epígrafe IV.1 presenta un análisis financiero del Ayuntamiento, y el IV.2 propone una serie de sugerencias complementarias para mejorar la gestión del mismo.

El ayuntamiento de Legazpi tenía a 31.12.96 una población de 9.241 habitantes, prestando algunos servicios mediante dos organismos autónomos y una sociedad pública:

- Patronato Municipal de Deportes
- Euskaltegi Municipal
- Herrigintza, SA (100% de participación): actuaciones urbanísticas.

Además, forma parte del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y de las Mancomunidades de Sasieta (recogida y tratamiento de basuras) y del Alto Urola (enseñanza profesional, información al consumidor, ambulancia, etc.). Otras participaciones minoritarias corresponden a las sociedades Legazpiko Industrialdea, SA, Sortu 2, SA, y Ur Zerbitzuak, SA.



CONCLUSIONES

I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción se han detectado los siguientes incumplimientos de la normativa aplicable:

Normativa presupuestaria y contable

- El Presupuesto no incluye el de la sociedad municipal Herrigintza, SA, ni fija el límite de endeudamiento de dicha entidad (art. 6.1.f, h y 6.2.c NF 4/91) que, a pesar de ello, contrató en 1997 un préstamo de 147 millones de pesetas. Las Cuentas anuales de la sociedad han sido aprobadas por el Consejo de Administración, pero no por su Junta General (el Pleno municipal), y no se incluyen en la Cuenta General de 1997 (art. 62 NF 4/91).
- Durante el ejercicio se han aprobado gastos sin que existiera consignación presupuestaria para los mismos, o resultando insuficiente la misma, en los siguientes casos:
 - Seis expedientes de los seleccionados para la revisión de contratación (ver anexo A.1), entre ellos los 3 referidos a la reforma del Polideportivo Municipal, adjudicada en 221 millones de ptas, existiendo consignaciones por tan sólo 149 millones.
 - Ampliación de capital en Legazpiko Industrialdea, SA por 140 millones, de los que 50 millones se han pagado en 1997 y el resto en 1998. El pago de 1997 se produjo en agosto, a pesar de que la modificación presupuestaria no se aprobó hasta diciembre.
 - Compra de pabellones de la Fundación San Miguel por 65 millones, cuando el Presupuesto preveía tan solo 60 para esta finalidad.
 - Pago de 6 millones por cuenta de Herrigintza, SA realizado en enero, mientras que el Presupuesto se aprobó en el mes de febrero.
- El control interventor no se ejerce sobre los dos organismos autónomos: Patronato Municipal de Deportes, y Euskaltegi Municipal.

Normativa tributaria

- El Pleno no ha aprobado la ordenanza correspondiente al precio público del servicio domiciliario de asistencia, que generó ingresos en 1997 por 3 millones. Este requisito es exigido por la normativa local (art. 50 NF 11/89 de Haciendas Locales) para su válida exacción.

Función pública y personal

- El Pleno de 3.12.97 aprobó la aplicación para 1997 del Arcepafe, con un incremento de las retribuciones respecto de 1996 del 1% más un importe fijo de 20.000 pesetas. La Ley

de Presupuestos Generales del Estado para 1997 (Ley 12/96 art. 17) establecía que las retribuciones de ese año no debían experimentar variación con respecto a las de 1996.

- El organismo autónomo Euskaltegi Municipal no tenía aprobada la Relación de Puestos de Trabajo a la fecha de nuestra revisión.
- El arquitecto municipal es personal eventual de confianza, nombrado en diciembre de 1992 con una dedicación de un tercio de jornada. En 1996 el Consejo de Administración de Herrigintza, SA le encomendó, en equipo con otro profesional (50%), la redacción de un proyecto de viviendas unifamiliares, sin considerar el régimen de incompatibilidades de los empleados públicos. El ejercicio de otras actividades por éstos exige la previa autorización, que, en este caso, hubiera debido denegarse (art. 11.3 y 11.6 del RD 598/85 de Incompatibilidades).

Contratación administrativa (ver anexo A.1)

- Hemos revisado los procesos de adjudicación de 19 contratos del Ayuntamiento y de los dos organismos autónomos, que generaron gastos durante 1997 por 260 millones de ptas, detectando los siguientes incumplimientos:
 - Se adjudicaron 9 contratos por 71 millones de pesetas sin un proceso concurrencial. En otros 3 casos, por 19 millones de pesetas, la adjudicación se produjo consultando a varios proveedores, cuando debió convocarse un concurso.
 - Doce de las adjudicaciones, con gastos en 1997 por 86 millones, se tramitaron sin confeccionar previamente un presupuesto o pliego técnico, ni un pliego de bases administrativas, y sin exigir al adjudicatario la certificación de estar al corriente de sus obligaciones fiscales.
 - En general, con la excepción de 2 expedientes, las resoluciones de adjudicación se emiten sin la fiscalización previa del interventor. Como consecuencia de este incumplimiento se han producido, por ejemplo, procesos de adjudicación sin consignación presupuestaria, como los 6 expedientes citados en la página anterior.
- La sociedad municipal Herrigintza, SA realizó compras o inversiones superiores a los dos millones de ptas en 5 ocasiones, que han supuesto gastos por 25 millones de pesetas, respetándose los principios generales de publicidad y concurrencia en el más importante de los expedientes pero no en los 4 restantes, que originaron gastos por 14 millones.

Inventario

- El último inventario aprobado corresponde al ejercicio 1992, sin que haya sido actualizado hasta la fecha (art. 33 RD 1372/86 Reglamento de Bienes).



II. ASPECTOS CONTABLES

Cuentas presupuestarias

1.- En nuestra revisión, realizada con el alcance descrito en la introducción, se han detectado los siguientes salvedades que influirían en la determinación del Remanente de tesorería:

	Millones- ptas.
	Efecto en Rem. Tes. a 31.12.97
Operaciones corrientes	14
- Ingresos tributarios pendientes de cobro a 31.12.97	71
- Provisión para saldos de difícil cobro	(51)
- Subvenciones corrientes pdtes. de cobro a 31.12.97	6
- Cap. 1: cuotas Seguridad Social y Elkarkidetza de diciembre de 1997	(5)
- Caps. 2 y 4: gastos de 1997 sin reconocer	(7)
Operaciones de capital	(189)
- Subvenciones de Diputación: Plan de Equipamientos y otros	19
- Polideportivo Bikuña: obras de reforma en campo de fútbol, no contabilizadas	(66)
- Otras inversiones de 1997 sin registro	(3)
- Ingresos reconocidos por préstamos no dispuestos	(139)
Total	(175)

2.- Ni el Presupuesto ni la Cuenta General preveían la existencia de créditos de compromiso. La operación de suscripción de la ampliación de capital de Legazpiko Industrialdea, SA hubiera exigido su dotación por 90 millones de ptas.

Cuentas patrimoniales

3.- El saldo de inmovilizado no puede verificarse, por no disponer el Ayuntamiento de un detalle individualizado del mismo: los importes del inventario realizado en 1992 sólo se actualizan anualmente por los gastos globales del capítulo 6 de inversiones.

4.- Las cuentas de la sociedad municipal Herrigintza, SA recogen una deuda de 59 millones de ptas con el Ayuntamiento, por pagos realizados en su nombre en ejercicios anteriores. Las cuentas municipales no recogen este saldo, ni se han establecido los plazos para su devolución.



III. SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO AL CENTRO PRIVADO CONCERTADO DE ENSEÑANZA

La actuación municipal respecto a los centros educativos varía según sean éstos de titularidad pública o privada. Si son públicos, el ayuntamiento colabora en su creación, construcción y sostenimiento (art. 25.n de la Ley 7/85 reguladora de las bases del Régimen Local), atendiendo al resto de costes la Administración General de la Comunidad Autónoma. Si el titular del centro es privado, el ayuntamiento no tiene ninguna obligación, y la administración autónoma financia, en su caso, la totalidad de costes a través del régimen de conciertos educativos, que concede subvenciones en función al número de aulas. Su importe varía según el nivel educativo (infantil, primaria, secundaria, etc.) y se desglosa en tres componentes: personal (el más importante), mantenimiento, y reposición de inversiones.

En Legazpi desarrollan funciones lectivas dos centros de enseñanza públicos y uno privado. Con respecto a este último, se da la especial circunstancia de que en noviembre de 1984 el Pleno aceptó la cesión por Patricio Echevarría, SA de unos edificios escolares, aprobando un convenio cuyos aspectos patrimoniales fueron objeto de escritura pública dos años más tarde. Esta entrega impuso al Ayuntamiento, bajo condición resolutoria, la continuación en la actividad docente del centro, y la realización de las obras y reparaciones precisas para mantenerlo en buen estado, citando expresamente los gastos de luz, gasoil, agua y limpieza. El convenio prevé también la asunción por un tercero del personal y de las funciones docentes, citando, en este sentido, a la administración autónoma.

Se detallan en el siguiente cuadro los costes de conservación y otras ayudas concedidas en los últimos cinco años a la asociación que gestiona el centro concertado de enseñanza:

CONCEPTO	COSTES DEL EDIFICIO Y AYUDAS 1993/97					Millones-ptas.
	1993	1994	1995	1996	1997	
Limpieza edificios.....	12,3	9,8	8,0	4,0	5,8	
Alumbrado y combustible calefacción.....	4,5	3,5	3,7	3,5	4,0	
Mantenimiento edificio	1,0	1,0	1,0	1,0	0,9	
Inversiones de mejora	2,5	6,1	2,8	1,1	3,7	
Subtotal costes del edificio	20,3	20,4	15,5	9,6	14,4	
Ayudas escolarización niños 2 años	3,3	2,7	2,4	1,3	-	
Actividades culturales.....	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	
Otros menores	0,5	1,1	0,5	1,0	0,3	
Subtotal ayudas para actividades	4,7	4,7	3,8	3,2	1,2	
TOTAL	25,0	25,1	19,3	12,8	15,6	

Costes del edificio

Estos pagos derivan de la cesión aceptada en 1984, cuya vigencia renueva anualmente el Pleno al aprobar las correspondientes consignaciones en el Presupuesto.

Con respecto a su complementariedad con las ayudas de la administración autónoma, submódulos de mantenimiento e inversiones de los conciertos educativos, entendemos que debe considerarse el carácter de máximos de los módulos, correspondiendo a la administración autónoma exigir la justificación al titular del centro de que sus costes igualan o superan a dichos submódulos.

De cara al futuro, son diversas las opciones que se plantean a la Corporación: mantener la situación actual, materializar la hipotética publicación prevista en el Convenio (cuando contempla que sea la administración autónoma la que asuma las funciones docentes), iniciar contactos con la asociación que utiliza las instalaciones y la empresa cedente para modificar el convenio de 1984, o resolverlo y volver a la situación anterior al mismo. En cualquier caso, debe considerarse que cualquier cambio trascendente con respecto a la actual situación requiere de la voluntad de las partes implicadas, pues la situación jurídica es atípica y poco precisa.

Si se opta por la continuidad, parece obligado coordinar los apoyos municipales con los de la administración autónoma. Siendo perfectamente lícito destinar fondos municipales a mejorar los servicios de educación producidos en el municipio, debe acreditarse la oportunidad de dichas ayudas complementarias y su no superposición con el sistema general de financiación, enlazando las ayudas con actuaciones concretas cuya efectiva ejecución pueda controlar el Ayuntamiento.

